

MASUSTEGI MASUSTEGI  
MASUSTEGI MASUSTEGI

---

Auzoa hiriaren mendebaldean dago, Basurto-Zorroztako, 8. Barrutiko, Kobeta Mendiaren hegaletan. Korea edo Brasil bezala ezagutzen da favelekin edo tankerako hiri-aglomerazioekin duen antzekotasuna dela eta. 50. hamarkadan sortzen joan zen lan bila, batez ere Galiziatik ahoz ahokoa zela eta, heltzen ziren migratzaileen etxebizitza beharra asetzeko. Auzoa frankismoaren lege baten babespean jaio zen, zeinak hormak eta teilatua zuen eraikuntza bat botatzea eragozten zuen. Auzokideek etxeak eta gainerako azpiegiturak eraikitzen zituzten gauez, eta egunez auzoko apaizak bertan zeudela ziurtatzen zuen. Monte Caramelo auzoarekin batera gaur egun 4098 biztanle ditu.

---

-tik-ra

MASUSTEGI MASUSTEGI MASUSTEGI MASUSTEGI

---



---

-tik-ra



- 
- Masustegi antolamendutik kanpo egon zen 2011ra arte. Urte horretan Udalak lurrak erosi zizkien Miguel de la Vía enpresariaren oinordekoei; horrela, auzoaren eta bere kudeaketaren titulartasuna udalaren esku geratu zen eta hobekuntza- eta egokitze-lan asko burutu dira.
  - Auzo benetan lasaia da, herriko tipologia duena, etxe baxuekin, lorategi edo patio txikiekin, orturekin eta animaliarekin (oilo eta oilar ugari adi daitezke). Bilboko ikuspegi onenak (egun garbietan itsasoa ere ikus daiteke) eta mendia etxeko atean.
  - Kale bakarra dauka auzoan barrena bihurka doana, baita aldapa zein eskailera ugari ere. Ezin da autoz heldu, goiko edo beheko aldeetara izan ezik (taxiak, anbulantziak edo suhiltzaileak ezin dira heldu auzoko hainbat aldetara).
  - Aspaldi astoak alokatzeko establezimendua zegoen. Eta autobusa hel zezan, auzokideek bat bahitu zuten 1984an. Gaur egun 58. lineak auzoa eta Atxuri lotzen ditu hiri osoa zeharkatuz.
  - Izaera propioa duen auzoa da, mundu bat beste mundu baten barnean. Auzokoa izatearen sentimendu eta auzo-harrotasun handiak daude. Bere gizarte-zentroa auzoko gune nagusia da, taberna, parrilak eta jolastokia dituen.
  - Bilbon iturri gehien dituen auzoa dela esan ohi da.
  - Uztaileko BBK Live jaialdiak bere lasaitasuna aztoratzen du.



MASUSTEGI MASUSTEGI MASUSTEGI MASUSTEGI



-tik-ra